


[a]
aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

DONOSTIAKO PUNTU KRITIKOEN MAPA 2014-2015



Antolatzaileak:



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Herri
Partaidetza
Saila

Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad



1	SARRERA -----	3
2	METODOLOGIA -----	4
2.1	PROZESUAREN HELBURUAK-----	4
2.2	XEDE TALDEAK ETA PROZESUAREN EGITURA -----	6
2.3	LAN SAIOAK ETA HAUEN EZAUGARRIAK -----	8
2.4	SAIOEN DATU OROKORRAK -----	11
3	PROZESUAREN EMAITZAK -----	14
3.1	HIRIKO PUNTU KRITIKOEN MAPA DEFINITZEKO OINARRIAK ETA IRIZPIDEAK-----	15
3.2	HIRIKO PUNTU KRITIKOEN MAPAN TXERTATUKO DIREN PUNTU BERRIAK -----	16
3.3	BERRIKUSTEKO GERATU DIREN PUNTUAK -----	17
3.4	ONARTU GABEKO PUNTUAK -----	18
3.5	PUNTU KRITIKOEN MAPA BERRIA-----	21
4	UDALAREN KONPROMISOA 2015.URTERAKO -----	24
5	PROZESUAREN BALORAZIOA -----	26
6	ERANSKINAK -----	30

1

SARRERA

Hurrengo orriotan "Donostiako hiritarrekin hiriko puntu kritikoen mapa kontrastatzeko prozesua, 2014"-k eman duena jasotzen duen txostena aurkezten da. Udaleko lan talde tekniko interdepartamentalak eginiko oinarritzko proposamenari buruz, hiritar zein eragileek dituzten balorazio, iritzi eta proposamenak jasotzea izan du xede prozesuak.

Prozesu honen abiapuntua, duela urte dezente Udal eta hiri mailan sorturiko mapa kritikoan kokatzen da. Horrela, izaera dinamikoa duen eta etengabean aldaketan eta birdefinizioan egongo den mapa berria sortzeari ekin dio Udalak. Oraingo honetan, prozesua abiatu aurretik Udaleko hainbat bitartekorekin sortutako mapa zirriborroa Auzoetako eragile eta emakume zein talde feministetan diharduten pertsonekin osatu da.

Dokumentu hau honako arloen arabera osatua dago: sarrera labur honen ondoren, prozesu hau antolatu eta diseinatzeko oinarritu garen erreferentziazko helburuak aipagai daude, eta jarraian, metodologia oharrak, partaidetzazko prozesuaren eskema eta urratsak jasotzen dira; honekin batera prozesua gorpuztu duten lan taldeen osaera azaltzen da. Hurrengo atalean emaitza nagusien aurkezpena egiten da.

Besterik gabe, sarrera hau amaitzearekin batera honako ideia azpimarratu nahi da: askotariko elkarteetan bueltan dauden pertsonak dira lan honen benetako balioa, eta horren errekonozimendu osoa merezi dute. Aurkeztu den proposamen bakoitzak eragina izan du txostenean aurkezten diren proposamenetan. Beraz, **guztioi, eta banan bana, txaloaldia eman nahi dizuegu egindako lanagatik, zuotako bakoitza gabe lana ez baitzen berdina izango.**

2

METODOLOGIA

Atal honetan prozesuak izan duen metodologiaren azalpena ematen da. Horretarako, honako azalpenak agertzen dira: prozesuak izan dituen helburuen kokapena lehenik; prozesuan partaide izan diren eragileak aurkezten dira, osatu den lan taldeen egiturarekin batera, segidan eta atala ixteko, lan fase eta fase bakoitzeko urratsen azalpena ematen da.

2.1 PROZESUAREN HELBURUAK

Prozesu honek ondorengo helburu nagusi hauei erantzun nahi izan die:

HELBURU OROKORRAK:

- ✓ **Donostia hiriko mapa kritikoa sortu izanaren arrazoi eta helburu nagusiak ezagutzera** eman herritar eta eragile zehatzei.
- ✓ Donostiako mapa kritikoa osatzeko erabili diren **irizpide eta printzipioak nabarmen kokatu, baloratu eta landu herritarrekin.**
- ✓ Generoaren ikuspegitik **kritikoak diren puntuak jasoko dituen mapa kontrastatu** herritarrekin.

HELBURU ZEHATZAK:

- ✓ Udal barne mailan **egindako lanaren berri eman** hiriko gizarte eragile zehatzei (auzo eta berdintasun eremuan dihardutenei) eta gaian erreferentzia zein interesa duten eragileei.
- ✓ Sortu/eguneratu den **maparen izaera dinamikoa azaldu** eta onartu, aurrera begira bidean osatzen joango den tresna gisa.
- ✓ Donostia hiriko mapa kritikoa eraikitzeke erabilitako **irizpideak baloratu, landu eta adostu** herritarrekin.
- ✓ Mapa kritikoa sortzeko zehaztutako **printzipio eta oinarriak abiapuntu eta marko gisa onartu.**
- ✓ **Teknikarien zehar mahaia kokatu**, eta balioan jarri herritarren aurrean, lanerako tresna osagarri gisa.
- ✓ Informazio iturriek, udal lantaldeak eta udal **langileek identifikatutako gune kritikoen berri eman**, baloratu eta osatu herritarrekin.

ZEHARKAKO HELBURUAK:

- ✓ **Elkarte edo erakunde publikoen artean elkarlan** eta parte-hartze kultura indartzea.
- ✓ Partaide bakoitzaren eta denen **berdintasuna eta garrantzia indartzea:** edozein dela elkartean edo erakundean duen rola, funtzioa, ardura; edozein dela duen generoa; edozein dela ordezkatzeko duen auzoa, e.a.
- ✓ Talde lanerako espazioak sortuz, **erakunde nahiz pertsona bakoitzaren interesen ikuspegi zehatzetik**, eta auziaren inguruko ikuspegi desberdinak mahai gaineratuz, **talde/komunitate ikuspegia lantzea.**
- ✓ **Kultura politikoaren eraldaketa sustatzea**, herritarren parte hartzea instituzioetan bermatzea, horrek dakarren demokraziaren kontzeptuaren zabaltze ariketarekin, ikuspegi desberdinen baturaz ikuspegi osoagoa bilatuz.

Egitura honi jarraiki, auzoetako eta emakume zein eragile feministetako ordezkariak prozesuaren momentu batzuetan elkarrekin egin dute lan, eta beste momentu batzuetan modu berezitan aritu dira lanean.

Abiapuntuan, honako taldeak izan dira deituak eta gonbidatuak zuzenean. Aipatzekoa da, lehen aurkezpen batzarraren ondoren, hainbat taldek adierazitako eragileen hutsuneak kontuan izanik, zerrenda osatzen joan dela saioz saio, eta kasu batzuetan, saioetara etorri ezin izan duten eragileekin aparteko bilerak egin dira, prozesuaren berri eman eta beraien ekarpenak jasotzeko:

AUZO ELKARTEAK	EMAKUME TALDEAK ETA TALDE FEMINISTAK
<ul style="list-style-type: none"> - Egia bizirik (Egia) - Parte Zaharrean bizi (Alde Zaharra) - Bera bera (Aiete) - Alto errondo (Errondo) - Altza XXI (Altza) - Amara Bai (Amara Berri) - Añorga Txikitarrak (Añorga) - Amara Berri - Averil (Loiolako Erriberak) - Auzoenea (Bidebieta) - Ilae (Ibaeta) - Intxaurdi (Intxaurrondo) - Urumea ibaia (Loiola) - Sarroeta (Martutene) - Morlanstarrak (Morlans) - IZBE (Intxaurrondo) - Lantxabe (Aiete) - Herripe (Altza) - Ondarpe (Gros) 	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumea eta hiria foroa - Unibertsitateko talde feminista - Zaintza taldea - Helduen hitza - Elkartu - Donostia Lagunkoia - Aniztasun funtzionala duten pertsonen kirol Elkarteak - Berdintasun Kontseilua: <ul style="list-style-type: none"> - Plazandreok - La liga de la leche - A.G.I. Gipuzkoako Ikusmen urri dutenen elkarteak - Asociación cultural de mujeres musulmanas Medina - Lilaton taldea - Asoaciación Mujeres Separadas de Gipuzkoa - Gehitu - Intxaurrondo Berri - Arrats - Lagunak - Medeak - Asade - Farapi - Dandai - Asociación provincial de amas de casa Aranzazu - LAB sindikatua - Er.N.E. sindikatua - ELA sindikatua - Norbanako esanguratsuak: Emakumeen Etxean zein mugimendu feministan dabilzan pertsona norbanakoak

Bi xede talde hauekin saio berezituak egin dira, saio batzuk auzo elkarteetako ordezkariak zuzenduak, besteak emakume talde eta talde feministetako ordezkariak.

Horrez gain, prozesuaren hasierako eta amaierako saioak modu bateratuan egin dira, xede talde guztietako ordezkariak bildurik. Edukiak eta proposamenak konpartitzeko eta bateratzeko gunea izan da, eta osotasunaz hausnartzeko balio izan du.

Aipatzekoa da halaber, prozesuan zehar antolatutako saio irekietan elkarten ordezkariak modu zuzen eta presentzialean parte hartu duten arren, elkarteetako ordezkari hauek euren elkarte, eragile zein mugimenduko beste kideekin kontraste ariketak eta lanketa burutu dutela. Beraz, elkarteetako ordezkariak harago hainbat herritarrek euren ekarpenak egiteko aukera izan dute elkarte hauen bidez.

PROZESUAREN DISEINU ETA ZUZENDARITZARAKO LAN TALDEA:

Prozesuaren diseinua zehazteko, nahiz zuzendaritza lanak egiteko, honako lan taldea osatu da:


- ✓ Donostiako Udaleko Herri partaidetzako teknikaria
- ✓ Donostiako Udaleko Berdintasun saileko teknikaria
- ✓ Aztikereko teknikaria (batzuetan bakarra, besteetan bi teknikarien bidez osaturik izan dena)

Horrez gain, prozesuaren momentu konkretuetan prozesuaren zuzendaritza eta hainbat erabaki Puntu Kritikoaren maparako Lan Talde Teknikoarekin landuak izan dira.

Prozesuaren konpromiso politikoa eta aurrera begirako hobekuntzetarako zehaztapenak berriz Berdintasun Arloa zuzentzen duen Udaleko Zinegotziarekin landu dira.

2.3 LAN SAIOAK ETA HAUEN EZAUGARRIAK

Donostiako Mapa Kritikoaren herritarrekin osatzeko prozesu hau honako lan fase eta urrats hauen bitartez garatu da, 2014ko azaro eta 2015eko urtarrila bitartean.



► **1.Fasea: Donostia hiriko mapa kritikoa. Egindako lanaren aurkezpena eta prozesuaren kokapena**

Lan fase hau 2014ko azaroan zehar garatu da, abendua hasierara arte luzatu delarik. Helburu nagusiak honakoak izan dira:

- Donostiako mapa kritikoa sortu edo berri izanaren helburua argi azaltzea.
- Mapa kritikoa sortzearen helburuari jarraiki, herritarrekin mapa kritikoa jasotzen dituen oinarriak kokatzea adostea.
- Donostiako herritar edo aurretik aipatutako xede taldeei Udalak egindako barne lanketaren berri ematea: sortutako zehar egitura teknikoa aurkeztu eta balioan ipini.
- Prozesu hau martxan jarri izanaren arrazoiak argitu eta herritarrekin osatzea.

1. Urratsa: komunikazioa. Prozesu osoan zehar garatu beharreko komunikazio lanaren diseinu eta lan banaketa zehatza egin da.

2. Urratsa: Hiriko puntu kritikoen maparen eta barne mailan egindako lanaren aurkezpen saioa. Prozesuan parte hartu duten **bi xede taldeak batuz saio bakar bat egin da**, prozesuaren aurkezpena eta kokatze lana egitea helburu izanik, batez ere. Orain arte Udalak barne mailan egindako lan eta ibilbidearen aurkezpena egin da bertan, sortutako mapaz gain, puntu kritikoa identifikatzeko irizpide eta oinarriak aurkeztuz, baita puntuak identifikatzeko egindako ibilbidea ere. Hurrengo saioetarako lanak aurreratzen joateko, hausnarketarako fitxa bana zabaldu zaie bertaratutako guztiei.



3. Urratsa: jasotako ekarpenen ustiaketa. Lehen saiora bertaratutako herritarrei alde aurretik beraiek osatutako hausnarketak bidaltzeko eskatu zaie, hurrengo saiorako eduki horiek guztiak ustiatuta eramateko aukera izateko. Epe muga bat jarri zen ekarpenak jasotzeko, baina oso eragile gutxik bidali zuten alde aurretik beraien hausnarketa, eta beraz, ez da ia ustiaketa lanik egin behar izan. Herritarrek euren elkarteetan egindako hausnarketen berri zuzenean hurrengo saioetan eman dute.

► **2.Fasea: Donostia hiriko mapa kritikoaren eta honen edukien inguruko eztabaida eta kontrastea.**

Behin prozesuaren eta honen eduki nagusien aurkezpena eginda, hurrengo urratsa eduki horien inguruko eztabaida ematea izan da. Modu honetan, **lan fase honen helburuak** honela definitu dira:

- Emakume talde eta talde feministekin, eta auzoetako ordezkariekin Lan talde teknikoak sortutako edukien kontrastea egitea.
- Mapa kritikoaren ezaugarri, printzipio eta edukien inguruko hausnarketa sustatzea herritarrekin.
- Eduki horien inguruko ekarpen eta moldaketak jasotzea.

1. Urratsa: kontrasterako saioak. Kontrasterako saio hauetan lan dinamika zehatz bati jarraiki osatua izango dela jakinik, bi xede talde nagusiekin saio banatuak egin dira. Saio hauetan ordezkari bakoitzak euren taldeetan egindako hausnarketa eta ekarpenak mahai gaineratu ditu. Honen bidez puntu kritikoak definitzeko irizpide eta oinarriek ekarpenak egin dizkiete eta Mapan gehitzeko puntu berrien proposamenak ekarri dituzte. Ekarpen hauen bitartez, partaide guztien arteko hausnarketa eta eztabaida sustatu da saio hauetan.

2. Urratsa: jasotako ekarpenen lanketa Udaleko lan talde teknikoan. Udalean sortutako lan talde teknikora eraman dira azken urrats honetan herritarrek egin dituzten ekarpenak. Aztikerrek alde aurretik puntu berri guztien proposamenak bidali dizkie Udal teknikariei eta bilera presentzial batean puntu guztiak baloratu dira. Puntu kritikoaren mapan txertatzea erabaki direnak, errebisatzeko pendiente geratu direnak eta mapan sartuko ez direnen artean bereizketa egin da, eta herritarrei itzulketak egiteko arrazoi eta argumentuak landu.

► **3.Fasea: Prozesuaren eta edukien itzulera eta gizarteratzeari buruzko ekarpenak**

Herritarrekin aurreko faseetan landutako eduki guztien ondorioak azaldu dira, hau da, **prozesuak sortu dituen edukiak eta hauen inguruan eman den eztabaidatik ateratako moldaketa eta ekarpenen itzulera** egitea izan da azken fase honen helburu nagusia.

1. Urratsa: ondorioen konpromiso politikoa. Lan talde teknikoarekin egindako balorazioaren ostean, eta prozesuaren amaierako itzulerari begira, Udalak maila politikoan gai honekiko hartzen duen konpromisoa zehazteko urratsa eman da. Zinegotzi arduradunarekin egindako bi lan bileren bitartez adostu da Donostiako Udalak 2015 urterako aurrekusten dituen esku hartze eta hobekuntzak zeintzuk izango diren, beti ere Udal Aurrekontuen onarpenaren arabera.

2. Urratsa: itzulera eta gizarteratzearen inguruko ideiak jasotzeko azken lan saioa. Azken saio honetan bi xede talde nagusiak berriro ere elkartu dira. Helburu nagusia prozesuan landu diren eduki nagusien ondorioak azaltzea izan da. Prozesu honetan eta Udal barne mailan egindako lanaren berri ere eman da urrats honetan, eta Udalak aurrera begira gai eta puntu hauekiko hartzen duen konpromiso politikoa agertu da. Azkenik, **prozesuaren balorazioa** ere egin da saio honetan. Prozesuan parte hartu duten eragileek prozesuaz, bertan sortutako edukiez eta prozeduraz egiten duten balorazioa jaso da.

2.4 SAIOEN DATU OROKORRAK

1.fasea: egindako lanaren aurkezpena eta prozesuaren kokapena

1.Saio bateratua, saioaren xehetasunak:

- Xede taldea: auzoetako ordezkariak eta emakume talde eta mugimendu feministako kideak
- Data: 2014ko azaroaren 26a
- Lekua: Donostiako Emakumeen Etxea
- Parte hartzaile kopurua: 28 herritar
 - o 22 emakume,
 - o 5 gizon eta
 - o genero gehiago¹ 1.
- Adin banaketa:
 - o 17>: 0
 - o 18-29: 4
 - o 30-49: 8
 - o 50-64: 9
 - o 65<: 7
- Bertaratutako elkarteak: Lantxabe, Altza XXI, Helduen hitza, Dandai, Egia bizirik, Ondarpe, Ilae, Intxaurdi, Morlanstarrak, Parte Zaharrean Bizi, Elkartu, Foro de las mujeres y la ciudad
- Udal Ordezkariak: Santxo Leizaola Herri Partaidetza saileko teknikaria, Ana Txurruka Berdintasun saileko teknikaria eta Pilar Braceras Hirigintza saileko teknikaria; eta Naiara Sampedro ordezkari politikoa.
- Aztikerreko Dinamizatzaileak: Susana Martinez eta Maitane Barrenetxea

2.fasea: Donostiako Mapa Kritikoaren edukien inguruko hausnarketa eta eztabaida

2.1. saioa, Auzo elkarteetako ordezkariekin, saioaren xehetasunak:

- Bilera zenbakia: 2
- Xede taldea: auzoetako ordezkariak
- Data: 2014ko abenduaren 9a
- Lekua: Donostiako Emakumeen Etxea
- Parte hartzaile kopurua: 24 herritar,
 - o 16 emakume,
 - o 7 gizon eta
 - o genero gehiago 1.

¹ Genero gehiago bezala esan nahi da: Ez emakume eta ez gizon bezala identifikatzen diren pertsonak, hau da, transexualak, transgeneroak, intersexualak, queer eta abar.

- Adin banaketa:
 - o 17>: 0
 - o 18-29: 3
 - o 30-49: 7
 - o 50-64: 10
 - o 65<: 4
- Bertaratutako elkarteak: Lantxabe, Altza XXI, Helduen hitza, Dandai, Egia bizirik, Ondarpe, Ilae, Intxaurdi, Morlanstarrak eta Parte Zaharrea Bizi
- Udal Ordezkariek: Santxo Leizaola Herri Partaidetza saileko teknikaria, Ana Txurruka Berdintasun saileko teknikaria, Pilar Braceras Hirigintza saileko teknikaria, Javi Vallejo eta Nerea Diez, dBus konpainiako ordezkariek.
- Aztikerreko dinamizatzaileak: Susana Martinez eta Maitane Barrenetxea

2.2.saioa, eragile feministak eta emakume elkarteak, saioaren xehetasunak:

- Bilera zenbakia: 2
- Xede taldea: emakume taldeak eta eragile feministak
- Data: 2014ko abenduaren 10ean
- Lekua: Donostiako Emakumeen Etxea
- Parte hartzaile kopurua: 18 herritar,
 - o 16 emakume,
 - o 1 gizon eta
 - o genero gehiago 1.
- Adin banaketa:
 - o 17>: 0
 - o 18-29: 2
 - o 30-49: 6
 - o 50-64: 7
 - o 65<: 3
- Bertaratutako elkarteak: Dandai, Farapi, Elkartu, Foro Mujer y ciudad, Emakumeen jabeak Donostiako Emakumeen Etxea eta Colectivo deportivo de personas con diversidad funcional.
- Udal Ordezkariek: Santxo Leizaola Herri Partaidetza saileko teknikaria, Ana Txurruka Berdintasun saileko teknikaria, Pilar Braceras Hirigintza saileko teknikaria, eta Nerea Diez, dBus konpainiako ordezkariek.
- Aztikerreko dinamizatzaileak: Susana Martinez eta Maitane Barrenetxea



3.fasea: Prozesuaren edukien itzulketa eta gizarteratzea, saioaren xehetasunak:

- Bilera zenbakia: 3
- Xede taldea: auzoetako ordezkariek eta emakume talde eta mugimendu feministako kideak
- Data: 2015eko urtarrilaren 13an

- Lekua: Donostiako Emakumeen Etxea
- Parte hartzaile kopurua: 20 herritar,
 - o 16 emakume,
 - o 3 gizon eta
 - o genero gehiago 1.
- Adin banaketa:
 - o 17>: 0
 - o 18-29: 4
 - o 30-49: 6
 - o 50-64: 6
 - o 65<: 4
- Bertaratutako elkarteak: Lantxabe, Helduen Hitza, Egia Bizirik, ILAE, Elkartu, Altza XXI, Intxaurdi, Parte Zaharrean Bizi eta Amara Berri.
- Udal Ordezkariek: Santxo Leizaola Herri Partaidetza saileko teknikaria, Ana Txurruka Berdintasun saileko teknikaria; eta Naiara Sampedro ordezkarik politikoa.
- Aztikerreko Dinamizatzaileak: Susana Martinez eta Maitane Barrenetxea

3

PROZESUAREN EMAITZAK

Bigarren atal honetan, prozesuak eman dituen emaitza nagusiak azaltzen dira. Horiek, prozesuan landutako edukien arabera agertzen dira.

- ✓ Lehendabizi, 3.1. puntuan, Hiriko puntu kritikoen Mapa definitzeko erabili eta landu diren irizpide eta oinarriak jaso dira.
- ✓ Hurrengo atalean, 3.2. puntuan, Donostia Hiriko Puntu Kritikoen Mapa osatzen duten puntu berriak jasotzen dira.
- ✓ Ondoren, 3.3. atalean jaso dira herritarrek egindako proposamen horietatik balorazio sakonago baten zain geratu direnak, eta beraz, errebisatzeko zain daudenak.
- ✓ 3.4.puntuan jaso dira mapa kritikoan txertatzeko proposamen horietatik lan talde teknikoak irizpideak ez betetzeagatik mapatik kanpo geratu direnak.

Aipatzekoa da puntuen proposamen guztietan herritarren arrazoi eta beharrak agertzen direla. Horrez gain, lan talde teknikoak puntu bakoitzaren inguruan egindako ekarpenak ere jasotzen ditu.

- ✓ Azken puntua, 3.5. atala alegia, prozesu honen emaitza nagusi den Donostiako Puntu Kritikoen Mapa dugu. Bertan, puntuen deskribapenak jasotzeaz gain, 2015. urtean zehar Udalak aurreikusten dituen esku hartzeak eta hobekuntzak, eta prozesu eta gai honekiko hartutako konpromisoak agertzen dira.

Abiapuntu gisa, aipatzekoa da herritarrek puntu berriak proposatu dituztela Puntu Kritikoen Mapari gehitzeko. **Proposamen horietatik 8**, puntu kritikoen mapan **txertatzea baloratu eta erabaki da**; beste **7 proposamen errebisatu eta berriro** baloratzekotan geratu dira, eta beraz momentuz ez dira mapan txertatu baina ez dira baztertu ere ez; azkenik, **32 izan dira herritarrek proposatu eta lan talde teknikoan ezezko balorazioa jaso dutenak**, ondoren 3.4. atalean euren arrazoiak ikusi ahal izango dira.

Erabaki hauek hartzeko prozesuaren lehendabiziko bi saioetan **landu ziren irizpide eta oinarriak izan dira abiapuntu**. Herritarrek proposamenak egin ostean, lan talde teknikoa bildu eta proposamen guztiak banan bana alde zuzenetik adostutako irizpide horien baitan baloratu dira.

Azpimarratu behar da prozesu honen emaitza nagusi hau, proposaturiko puntu guztiei zuzenean eragiten diena:

- Udalak, proposaturiko **puntu guztien argiztapenaren egoeraren errebisioa egingo du**, horrela dagokionean, berau hobetuz (onartutako puntua izan ala ez).
- Era berean, **proposaturiko puntu guztietan begetazioaren egoera ere aztertuko du**, berau hobetuz ere (onartutako puntua izan ala ez).
- Azkenik, **Udalak igogailu guztien egoera aztertuko du**, eta horiek egokitzeko plan zehatza sortuko du (onartutako puntua izan ala ez).

3.1 HIRIKO PUNTU KRITIKOEN MAPA DEFINITZEKO OINARRIAK ETA IRIZPIDEAK

Udaleko lan talde teknikoak lanketa garrantzitsua egin du Puntu Kritikoaren Maparen osakeraren oinarrian izan behar dituen ezaugarriak zehazten, eta puntu kritiko bat izendatzeko puntu horrek zein irizpide bete behar dituen definitzen. Horrela, jarraian azaltzen direnak dira mapa osatzeko oinarriak eta irizpideak:

PRINTZIPIOAK

- Espazio publikoan dauden puntu kritikoak soilik islatuko dira mapan.
- Kapa ezberdinak biltzen dituen mapa anitza izango da:
 - o **Hirigintzaren ikuspegitik** arazoak dituzten gunekak.
 - o Espazio publikoaren **erabileraren arabera** sortzen diren gunekak.

IRIZPIDEAK

1) **Hirigintzako mapa**

- Espazioaren irizpideak:
 - Argitasuna
 - Irisgarritasuna
 - Hiri jarraipen eza / konexio gunekak / beharrezkoa konexioak
 - Lorezaintza (ezkutuko gunekak, etab).
 - Ikusi eta entzun ezin duzun gunekak, ez ikusia eta ez entzuna izan zaitezkeen gunekak.
- Espazioaren ezaugarriak:
 - Igogailu publikoak.
 - Barne enparantzak.
 - Irisgarritasun okerra.
 - Tunelak eta lurpeko pasabideak.
 - Hondartzak eta itsasoa.

2) **Erabileraren mapa**

- Gutxi erabilitako bideak.
- Egun zehatzetan asko erabilitako gunekak: Jaiak, Aste Nagusia, Santo Tomas, etab.
- Eguneko ordutegiak: Eguna eta gaua.
- Asteko egunak: astean zehar edo asteburua.

3.2 HIRIKO PUNTU KRITIKOEN MAPAN TXERTATUKO DIREN PUNTU BERRIAK

Donostiako hainbat eragile eta herritarrekin osatu eta landutako prozesu honetan egindako proposamenetatik 8 Donostiako Udalak alde aurretik egindako mapa zirriborroan txertatzea erabaki da.

Erabaki hauek hartzeko, arestian esan bezala, Udaleko puntu kritikoan lan talde teknikoak banaka baloratu eta aztertu zituen puntu proposamen guztiak.

Atal honetan jasotzen diren puntuek irizpideak betetzen zituztela baloratu eta Donostia Hiriko puntu kritikoan mapan txertatzea erabaki da. Ondoko koadro honetan jasotzen dira puntu kritiko berriak, puntu bakoitzaren kokalekua eta auzoa azalduaz, eta lekuaren ezaugarrien deskribapen labur batekin.

MORLANS BERRI INGURUNEA: Leire plazaren atzeko aldea, 2. Zenbaitik 7.era; Antonio Maria kalea, 6-14 bitartean; Morlans pasealekua 19-29	Morlans	Ikusi eta entzuteko ezintasuna, leku ezkutak
CARLOS I – PODABINES elkartzen diren gunea	Amara	Argiztapen eskasa, zoko edo bazter ilunak
MALDATXOKO TUNELA, Duque de Mandas Etorbidetik Konkorreanera igotzeko	Egia	Egiako zonalde batzuetara joateko hemendik pasa beharra dago. Ezin duzu ez entzuna ez ikusia izan, eta argiztapen eskasa.
MUNDAIZ PASEALEKUA	Egia	Transito gutxikoa, ez dago oinezkoentzat ibilbiderik (espaloirik ere ez), argitasun gutxi, eta muroa alde batean, fabrika edo lantegiak bestean
LARRATXOKO IGOGAILUAK	Altza	Plazoleta inguru horrek ez du segurua ematen. Igozailuak itxiak dira, argitasun gutxi dago inguruan.
LARRATXO – HERRERA arteko bidea	Altza	Ez dago komertziorik, ez dago jenderik han ingurunean. Garajeak daude, zoko asko.
URKIKO PASOA, Loiola eta Egia elkartzen dituenak	Loiola	Ilun dago, inguruan ez dago ezer ikusi edo entzuna izan zaitezten
PIO BAROJATIK – MIRAKONTXARA joateko bidexka (Jauregitik)	Antigua	Leku bakartia, iluna, ezin entzuna ezta ikusia izan

Koadro honetan ikus daitezkeen proposamenetatik lehendabiziko seiak auzoetako ordezkariak egindako proposamenak dira. Azken biak izan dira eragile feminista eta emakume taldeek proposatu dituztenak ditugu. Aipatzekoa da, lehendabiziko proposamenak (Morlans berriko inguruneari dagozkionak) bere jatorrian hiru proposamen ezberdin zirenak biltzen dituela.

Lurralde ikuspegiari dagokionean, auzoetako ordezkariak egindako proposamenak izaki, lurralde ikuspegi aldetik oreka mantentzen lagundu duela esan daiteke.

3.3 BERRIKUSTEKO GERATU DIREN PUNTUAK

Herritarrekin puntu kritiko proposamenen azterketa eta puntu berrien proposamenak jasotzeko prozesu hau, denboran mugatu eta markatua egon da diseinua egin zenetik. Herritarrek egindako proposamen batzuk Udaleko lan talde teknikoko kideek ez zituzten ziurtasunez ezagutzen, gune horri zegozkion ezaugarrien inguruko zalantzak sortu dira, eta gune horiek denak errebisatzeko eta prozesua amaitu aurretik erantzuteko ezintasuna ekarri du.

Arrazoi hauek guztiak tarteko, mapa honetarako proposatu diren hainbat puntu modu sakonagoan baloratzeko eta aurrerago erantzuteko geratu dira. Momentuz, ez dira puntu kritikoen mapan txertatu, baina ez dira baztertu ere.

Honako puntuak dira errebisatzeko zain geratu direnak:

ALDAPA kalearen eta RIO kaleak elkartzen dituen eskailerak (de los aviones)	Egia	Gaizki urbanizatutako ingurunea, argitasun gutxi, transito gutxi, eta begetazio handia.
EGIAtik LOIOLara JAISTEKO BIDEA	Egia	Transito gutxikoa, autoz beterikoa, ezkutatzeko aukera auto eta muroaren artean, espaloi estua
RIOS INGURUNEA (Deba, Oiartzun, Bidasoa)	Egia	Argitasun eskasa, begetazio handia
ZARATEGI pasealekutik MONSera doan "atajoa"	Intxaurrondo	Begetazio handia (mucho arbolado), argitasun falta
Altzan, Tren geltokitik LAU HAIZETArako bidea	Altza	Inguru oso transitatua (erabilia) baina isolatua
HERRERAtik ALTZA ingurura igotzeko bidea	Altza	Dentsitate handiko ingurunea, baina isolatua
TRINTXERPERA jaisteko eskailerak, HERRERATIK	Herrera	Ezkutuan daude, isolatuta

Koadroan ikus daitekeen moduan 7 dira errebisatzeko pendiente geratu diren herritarren proposamenak. Hauetatik lehendabiziko laurak auzoetako ordezkariak eginikoak dira, 4 horietatik 3 Egian kokatuak daudelarik. Beste hiruak berriz emakume talde eta eragile feministek proposatu dituzte.

3.4 ONARTU GABEKO PUNTUAK

Onartu direnak eta errebisatzeko zain geratu direnak aipatuta, puntu proposamen bezala onartu ez direnak geratzen zaizkigu puntu guztien errebasoarekin amaitzeko.

Lan talde teknikoak puntu hauek tentuz baloratu eta mapan ez txertatzea erabaki ditu arrazoi ezberdinak tarteko. Kasu gehienetan eztabaidatu eta erabakitako irizpideak ez direlako betetzen gertatu da hau, askotan, argitasun edo begetazioarekin loturiko irizpide bat baino, norberaren segurtasun faltaren hautemateak puntu bat kritiko edo ez seguru bezala hautematera garamatza, nahiz eta hirigintza aldetik eta adostutako irizpideen aldetik baldintza guztiak bete.

Puntu hauen proposamenetako asko argitasun faltarekin eta begetazioarekin loturik daudela aipatu dute herritarrek. Hori dela eta, lan talde teknikoak eta Donostiako Udalak, konpromisoa agertu dute, puntu hauetan guztietan, nahiz eta mapatik kanpo geratu argiteria eta begetazioa errebisatu eta beharrezko moldaketa eta txukunketak egingo dituztela.

Horrez gain, aipatzekoa da baita ere igogailuen kasuekin lanketa berezia egiteko konpromisoa hartu dutela Udaletik. Izan ere, hondartza, lurpeko pasabide edota beste hainbat leku bezala esku hartze orokor eta konkretuak beharko dituztela aurreikusten da igogailuen kasuan.

Amaitzeko, puntu proposamen guztien ezezkoak argudiatu ditu lan talde teknikoak honako koadroan jasotzen den moduan:

Morlanseko VIAL AZPIA	Morlans	Azken urteetan hobekuntza ugari jasan ditu inguru honek. Horretaz gain, esku hartze bat egitea aurreikusten da, mugikortasun eta garraio segurtasun aldetik. Horrek hobekuntzak ekarriko dituela espero da baita ere
AUTONOMIA – MORLANSen lotzen diren espazioa	Morlans	Egia da ingurunean baduela halako tunel sentrazioa, baina argiztapena ondo dago, espazio irekia da.
AIETeko parkearen SARRERA	Morlans	Ez da beharrezko ibilbidea.
FELIPE IV PARKEA	Amara	Ez da zertan institutu ondotik pasa, errepide bazterreko ibilbidea ondo argiztatua dago. Parke guztia argiztatzea ez da beharrezkoa ikusten. Hala ere, argiztapenaren errebisioa egingo da, argi laranja daudela uste baita (ilunagoak direlarik).

ERRONDO PASEALEKUA, Easo plazatik Amara Berriraino	Amara	Begetazioa eta argiztapena errebisatuko dira
PEÑAFLOIDA ESKOLA zegoen tokitik ANBULATEGI BERRIra dagoen KALETXOA	Amara	Ez da derrigorrez pasa beharreko eremu bat, ekidin daiteke.
BIZKAIA PASEALEKUA	Amara	Begetazioa eta argiztapena errebisatuko dira
MUNDAIZeko IGOGAILUA	Amara	Igogailua itxi egiten da, eta beraz, gauzez ez da inor ibiltzen igogailu honetan. Egunean zehar jende eta erabilera asko dauka. Hala ere, egia da oso sarbide desegokia duela igogailu honek.
AIETE PARKEAn, 3 sarbideak lotzen dituen bidea	Aiete	Ez, sarrera nagusitik ibiltzea gomendatzen da, beste biak ez dira derrigorrezko ibilbideak
GARBERA eta INTXAURRONDO elkartzen dituen BIDEA	Intxaurreondo	Argiztapena errebisatuko da, baina hasiera batean behintzat ez da derrigorrezko ibilbidea eta ezetz erabaki da.
POLIDEPORTIBOTIK KUARTEL aldera doan bidea (Otxoki pasealekua)	Intxaurreondo	Argiztapena errebisatuko da
TXAPARRENE PASEALEKUA	Intxaurreondo	Bertatik pasatzea ekidin daiteke, ez baitago portalik bertan. Bigilantzia badago ingurune horretan baita ere. Hala ere, errebisatu daiteke, argiztapena eta begetazioaren ikuspegitik.
ELIZARAN PARKEA	Intxaurreondo	Argiztapena errebisatu behar da
KURSAAL ATZEALDEA	Gros	Eremu pribatua izateaz gain, ez da derrigorrean pasa beharreko toki bat
ZURRIOLA pasealekua, people diskotekaren ingurua	Gros	Erabilerearen arabera markatu daiteke, baina hirigintzaren ikuspegitik ondo dago.
SAGÜES	Gros	Ez da beharrezkoa ikusten inguru hori argiztatzea, ez da derrigorrezko bidea
CATALUÑA PLAZA	Gros	Plaza irekia da, asko erabiltzen da, bizitza handikoa da.
Nafarroa Behera plazan, KELLY'S tabernaren ingurunea	Gros	Beste mapan agian, baina honetan ez (hirigintzaren ikuspegitik plaza egokia da)
APEADERORA doan bidea, Iztueta atzean, eta Calzada de Egia	Gros	Portal batzuk badaude, egia da, baina ez da uste gune kritikoa denik, bizitza duelako inguruak eta ez delako derrigorrez bertatik pasa behar
LUGARITZ TOPO ESTAZIOTIK beherantza, gasolinera alderako bidea	Antigua	Ez da derrigorrez bertatik pasa behar, karretera ondoko bidetik joan daiteke, eta beraz, ekidin daiteke.
XABIER LIZARDI kaletik Diario Vascorantza jaisteko bidea	Antigua (Errotaburu)	Ingurune irekia da, argiztapena ondo dagoela uste da, eta bide alternatiboa du, Tolosa etorbidea.
IGOGAILUA	Antigua	Hobekuntza batzuk egin daitezke, baina ez da derrigorrezko bide bat etxera bidean. Ibilbide alternatiboak ditu.
ATEGORRIETako Apeaderotik, cocherasetik MONSera igotzeko bidea	Intxaurreondo	Argiztapena errebisatuko da, baina ez da uste puntu kritikoa denik, gainera trafikoa dago, eta ez daude leku ezkutak

ARABA PARKEA	Amara	Ez da nahitaez pasa behar bertatik, eta orokorrean, parkeak ere puntu beltzetatik kanpo uztea pentsatu zen.
KIROLDEGIAREN atzeko aldea	Bidebieta	Ez da beharrezko bidea, argia dago eta aurrealdean espaloia onago dago bisibildadearekin.
AIZKORRIKO IGOGAILUA	Antigua	Biak transparenteak dira, iristeko ere irisgarritasun onago dago, zalantzak aizkorriko bigarren pisuan, ze soportal batzuetara ateratzen zara. Dena den, igogailuekin hausnarketa espezifikoa egingo dugu. Orain ez dira landuko baina aurrerago landuko da igogailu berriak egiterako garaian irisgarritasuna onago izateko.
BENTA BERRI PLAZAKO IGOGAILUA	Antigua	Biak transparenteak dira, iristeko ere irisgarritasun onago dago. Dena den, igogailuekin hausnarketa espezifikoa egingo dugu. Orain ez dira landuko baina aurrerago landuko da igogailu berriak egiterako garaian irisgarritasuna onago izateko.
ZARAUTZ ETORBIDEA	Antigua (Lorea)	Orokorregia da, auzo oso bat da eta soportalak pribatuak dira gainera
LOREA, OROKORREAN	Antigua (Lorea)	Orokorregia da, auzo oso bat da eta soportalak pribatuak dira gainera
PIO BAROJAko igoera (beheko aldea gehienbat)	Antigua	Espaloia onago dauka, bisibilitatea dago, txukun dago
Antiguako anbulategitik magisteritzarako atzeko bidean dauden SOPORTALAK	Antigua	Egunez erabiltzen da batez ere, argia dauka, zaindua dago bizilagun , oso txukuna eta ez hainbeste rekobeko.
MATIA kalea, FRONTOIA eta MIKELETES elkartzen dituen bidea	Antigua	Argiztapena errebisatuko da. Bide alternatiboak daude eta txukun dago.

3.5 PUNTU KRITIKOEN MAPA BERRIA

Puntu kritikoen mapa osatu eta kontrastatzeko prozesu honen emaitza eta zabalpenerako tresna nagusia, beraz, Udaletxeko lan talde teknikoak egindako zirriborrotik eta herritarren ekarpen eta proposamenak jasotzetik sortutako mapa berria izango dugu.

Bi jatorri ezberdin horiekin sortutako puntuek osatzen dute Donostia Hiriko Puntu Kritikoen Mapa berria. Prozesuan etengabe gogorarazi den moduan **mapa dinamikoko baten aurrean kokatzen garela aipatzekoa da, aldaketa, puntuaren desagertzea edota puntu berrien agerpena etengabekoa** eta geldiezina izango delarik.

Azkenean, prozesuaren amaieran eta **momentuz**, guztira 41 puntuk osatzen dute Mapa berri hau. Hauetatik 33 Udalak egindako zirriborroan dute jatorria, eta herritarrekin egindako prozesuan onetsiak izan dira. Gainerako 8ak prozesu honen bitartez herritarrek proposatu dituzte eta mapara gehituak izan dira.

	PUNTU KRITIKOAK	AUZOA	KAUSA
1	ALDAPETA – SAN BARTOLOME	Amara, Erdialdea, Aiete	Leku izkutatua- eskailerak
2	SAN ROQUE	Amara	Leku izkutatua- eskailerak
3	KAPITAÑENE	Egia	Liskarren ingurunea
4	HILERRIAREN INGURUAN- PARKING MATIGOXOTEGI	Egia	Leku isolatua
5	ATEGORRIETAKO GELTOKIA	Ategorrieta	Liskarren ingurunea
6	OLETAKO LURPEKO PASABIDEA	Altza	Lurpeko pasabidea
7	HERRERAKO LURPEKO PASABIDEA	Altza- Herrera	Lurpeko pasabidea
8	MANTEO	Gros	Liskarren ingurunea
9	CARLOS I KO PASABIDEA	Amara berri	Lurpeko pasabidea
10	CIUDAD JARDIN	Loiola	Errepideko pasabidea
11	PARADA BASERRIA	Intxaurrondo	Gutxi erabilitako bidea
12	HERRERA- BIDEBIETA GELTOKIA	Altza	Izkutuko lekua
13	IZTUETA GUNEA	Gros, Egia	Izkutuko lekua – liskar gunea
14	ALDAKOENEA	Egia	Izkutuko gunea-eskailerak-liskar gunea
15	EGIAKO PASABIDEA	Egia	Lurpeko pasabidea
16	ERRONDO SAN JUAN DE DIOS BIDEA	Amara, Amara berri, Aiete, Morlans	Leku isolatua
17	HERRERAKO PASABIDEA	Altza	Gune isolatua-gutxi erabilia
18	HARRIA PARKEA	Altza	Gune iluna eta isolatua
19	KATALINA ELEIZEGIKO LURPEKO PASABIDEA	Morlans	Lurpeko pasabidea
20	ATEGORRIETAKO BIDE ZAHARRA	Ategorrieta	Gune isolatua-gutxi erabilia
21	GARBERA- LARRATXO BIDEA	Altza	Lurpeko pasabidea
22	LA ANUNCIATA IKASTETXEA	Altza	Lurpeko pasabidea
23	IKASTOLA IBAI	Ibaeta	Gune isolatua
24	ZORROGAKO TUNELA	Loiola, Loiolako erriberak	Lurpeko pasabidea
25	BAZTAN –KAPITAÑENE ESKAILERAK	Egia	Izkutuko gunea-eskailerak
26	BUENA VISTAKO IGOGAILUA	Altza	Gune isolatua
27	ZONA CASARES – ARRIZAHAR	Altza	Gune isolatua
28	BERRA 19 – CASARES 7	Altza	Ezkutuko gunea
29	BERRIA 25 – CASARES 61	Altza	Ezkutuko gunea
30	JAUREGI 30	Aiete, Antiguu	Ezkutuko gunea

31	JAI ALAI	Egia, Gros	Gutxi erabilitako bidea
32	ULIA	Ulia	Gutxi erabilitako bidea
33	JULIMASEME + TXINGURRI	Intxaurrondo	Gutxi erabilitako bidea
34	MORLANS BERRI INGURUNEA: Leire plazaren atzeko aldea, 2. Zenbakitik 7.era; Antonio Maria kalea, 6-14 bitartean; Morlans pasealekua 19-29	Morlans	Ikusi eta entzuteko ezintasuna, leku ezkutua
35	CARLOS I – PODABINES elkartzen diren gunea	Amara	Argiztapen eskasa, zoko edo bazter ilunak
36	MALDATXOKO TUNELA, Duque de Mandas Etorbidetik Konkorreareara igotzeko	Egia	Egiako zonalde batzuetara joateko hemendik pasa beharra dago. Ezin duzu ez entzuna ez ikusia izan, eta argiztapen eskasa.
37	MUNDAIZ PASEALEKUA	Egia	Transito gutxikoa, ez dago oinezkoentzat ibilbiderik (espaloirik ere ez), argitasun gutxi, eta muroa alde batean, fabrika edo lantegiak bestean
38	LARRATXOKO IGOGAILUAK	Altza	Plazoleta inguru horrek ez du segurua ematen. Igogailuak itxiak dira, argitasun gutxi dago inguruan.
39	LARRATXO – HERRERA arteko bidea	Altza	Ez dago komertziorik, ez dago jenderik han ingurunean. Garajeak daude, zoko asko.
40	URKIKO PASOA, Loiola eta Egia elkartzen dituen	Loiola	Ilun dago, inguruan ez dago ezer ikusi edo entzuna izan zaitez
41	PIO BAROJATIK – MIRAKONTXARA joateko bidexka (Jauregitik)	Antigua	Leku bakartia, iluna, ezin entzuna ezta ikusia izan

ESKU HARTZERAKO ESPARRUAK

Udalak, prozesu honetan landu eta osatu diren puntu kritikoak desagerrarazteko bidean, hobekuntza eta esku hartze ezberdinak proposatzen ditu.

Aipatzekoa da, esku hartze eta hobekuntza guztiak ez direla administrazioaren esku edo gain geratzen, hau da, Udalak behin eta berriz aipatu du prozesuan zehar herritarrek eta herri eragileek osatzen dutela hiria eta hauen esku hartzea ezinbestekoa dela hiri inklusiboago bat lortzearen bidean eta indarkeria sexistatik gabeko hiri batean.

Idea hori abiapuntu gisa hartuaz, eta puntuen hobekuntzak eta desagerpenak esku hartze urbanistiko batetik soilik ez direla iritsiko argi azalduaz, 6 esku hartze mota ezberdin proposatu dira prozesu honetan zehar.

Hobekuntza eta esku hartzea sei eremu ezberdinen bitartez egiteko aukera aurreikusten da:

- Hirigintzaren ikuspegitik esku hartzea:** puntu kritikoa ezaugarri urbanistikoaren eraginez hobe daitekeela kontuan izanik proposatzen diren esku hartzeak dira honakoak. Mantenu lanak, obrak, ispiluak jartzea edo espazio horiek material berriz hornitzea, argiztapen edo begetazioaren hobekuntzak egitearekin zerikusia izan dezaketen esku hartzeak dira, besteak beste.

2. **Sentsibilizazioa:** hiriaren erabileran, erasoen prebentzio eta salaketan, edota hirian askatasunez bizi edo hiri inklusiboagoa lortzearen ikuspegitik sor daitezkeen kanpaina edo komunikazio lanak izango dira. Pertsonok hirian bizitzeko askatasun eta segurtasunean eragiteko asmoarekin martxan jarritako dinamikak lirake. Martxoak 8, azaroak 25 edota Aste nagusiko kanpainak dira hauen kasu, baina horrez gain, sentsibilizazio lanketa berezitu eta espezifikoak ere antolatzen dira, autodefentsa feministarako tailerrak, adibidez.
3. **Espazio publikoaren okupazioa eta jabetzea:** herri eragileekin batera, auzolanean eta modu sortzailean guneak egokitzeko aukera biltzen du esku hartze mota honek. Puntu hauen hobekuntzak auzolanean gara daitezke Herri eragileek hala sustatuta, edo baita Udalak ere herri eragileen konplizitatearekin. Modu sortzailean egokitu daitezke puntuok, artista desberdinen lankidetzarekin, eta horretarako, herri eragileek hainbat laguntza jaso ditzakete:
 - a. Partaidetza proiektuetarako diru laguntzak. Betiere auzolanean egiten badira eta herritarren partaidetzarekin.
 - b. Berdintasun proiektuetarako diru laguntzak
 - c. Diru laguntzetarako 2015. urteko deialdia urtarrilaren 16aren eta otsailaren 16aren artean luzatuko da.

2016 proiektuan, egindako lanak, Bizitzaren itsasargian koka daiteke eta bertan badira pare bat ekimen puntu kritikoak hobetzeko baliagarriak izan daitezkeenak:

 - a. Arkitektura eta urbanismoa: Hiria erabilgarriago eta atseginago bilakatzeko ekimen artistiko/kultural partehartzaileak.
 - b. Auzolana sustatu eta ahalbidetzen duten ekimen ezberdinak.

Metodologikoki ere, 2016 proiektuak, prozesu sortzaileak garatzeko laguntzak ahalbidetzen ditu Auzolab deialdi irekien bitartez, eta aukera bat izan daiteke puntuak hobetzeko prozesuetarako.

 - a. Auzolab deialdia: otsailean eta uztailean
4. **Hirigintzaren ikuspegitik, egungo Araudietan egin beharreko aldaketak:** Egungo araudian aldaketak egiteko aukera, prebentzioaren ikuspegitik, hurrengo eraikuntza eta hirigintza esku hartzeetan hiri inklusiboago eta seguruago bat sortzearen ikuspegia kontuan izan dadin. Honek hirigintzako esku hartzeetan genero adierazleak kontuan hartzea ekarriko luke.
5. **Zerbitzuak:** autobusak, mugikortasuna errazten duten ekimenak, ibilbide alternatiboak, gizarte zerbitzuak, etab

6. Bestelakoak

4

UDALAREN KONPROMISOA 2015.URTERAKO

Herritarrekin kontrastatu eta osatutako puntu hauek guztiak 2015ean desagerraraztea ezinezkoa izango dela abiapuntu bezala hartuta, Donostiako Udalak puntu hauen lanketa eta desagerpenerako, eta baita indarkeria sexistaren gaia eta hiri inklusiboago bat sortzearen ikuspegitik egin beharreko sentsibilizaziorako hainbat konpromiso hartu ditu herritarren aurrean.

Naiara Sampedro zinegotzi arduradunak agertu ditu Udalak hartzen dituen konpromiso hauek, 2015. Urterako lanak zehazten direlarik.

Udal Aurrekontuan isla izango duten erabakiak honakoak izango dira:

- ✓ Hasteko, mantenu lanetatik, puntu kritikoen mapan txertatuko ez diren puntu proposamen guztiak errebisatuko dira argiteria eta begetazioaren ikuspegitik. Beharrezkoa ikusten den kasuetan argiterian aldaketak egitea eta begetazioan hainbat mantenu lan egingo lirateke modu honetan.
- ✓ Hiri mantentze eta Azpiegitura Zuzendaritzatik 8.000-9.000€ inguru bideratuko dira mapa honetako 8 puntu konkretutan esku hartzeak eta hobekuntzak egiteko, beti ere hirigintzaren ikuspegitik pentsatutako hobekuntzak direla kontuan izanda. Ikuspegi urbanistikotik esku hartzea 8 puntutan aurreikusten da:

(1) ALDAPETA - SAN BARTOLOME, (5) ATEGORRIETAKO GELTOKIA, (6) OLETAKO LURPEKO PASABIDEA, (7) HERRERAKO LURPEKO PASABIDEA, (19) KATALINA ELEIZEGIKO LURPEKO PASABIDEA, (22) LA ANUNCIATA IKASTETXEA, (28) BERRA 19 - CASARES 7, (33) JULIMASEME + TXINGURRI.
- ✓ 2015eko Udal aurrekontu proposamenean eurentzat partida propioa aurreikusten da honako bi proiektu hauetan: (23) IBAI IKASTOLAKO esku hartzea, eta (38) LARRATXOKO igogailua
- ✓ Berdintasun ataleko partidari dagokionean, Udal Gobernuaren proposamena, inbertsioen atalean 50.000€ gordetzea da puntuetan hobekuntzak egiteko, obrak, etab. Partida hau aurrekontuen onarpenaren baitan dago, hau da, onartuko ez balira ez lukete partida hori edukiko. Aurrekontua onartuko balitz, diru kopuru honekin zein puntutan esku hartuko den ez dago zehaztua.
- ✓ Bestetik, Berdintasuneko aurrekontuari loturik kasu honetan baita ere, gastu arruntean sentsibilizaziorako 20.000€ aurreikusten dira, sentsibilizazio kanpaina zehaztutara bideratua egongo dena, tartean kokatzen dugu mapa kritikoen inguruko sentsibilizazioa.

Udal Aurrekontuarekin zerikusia duten esku hartze hauek guztiek baldintzapen argi bat dute, izan ere, 2015erako Udal Aurrekontuan txosten hau idazten den momentuan ez daude onartuak, eta zinegotziak azken saio irekian azaldu zuen moduan, ez dago ziurtasunik aurrera aterako direnik. 2015eko udal Aurrekontuak onartuko ez balira, 2014koak prorrogatu beharko lirateke, eta horrek esku hartze hauengan ezegonkortasuna ekarriko luke. Inbertsioen atalera zuzendurik dauden esku hartzeen kasuan Udalbatzatik pasa beharko lirateke esku hartze proposamen guztiak banan bana.

Hala ere, Udal Aurrekontuarekin zerikusia duten konpromisoez gain, beste lau ideia ere aipatu dira konpromisoa agertzerakoan.

Alde batetik, arestian aipatu bezala, Puntu Kritikoek Mapatik kanpo geratu diren **puntu proposamen guztietan argiteria eta begetazioa errebisatuko dira**. Puntuaren errebisioan hala baloratuko balitz, beharrezko hobekuntza lanak edo esku hartzeak burutuko ditu Udalak. Gainera, igogailuen kasuan lanketa berezitua egitea erabaki du.

Bestetik, Udalak konpromisoa hartu du Hiriko puntu kritikoek mapa sortu eta jarraitzeko **lan talde teknikoak biltzen eta puntuaren inguruko lanketa egiten jarraituko duela**, jarraipena, esku hartzeen planifikazioa, gainbegiraketa, etab.

Honez gain, **Udal araudian hirigintzari dagozkion aldaketa** eta moldaketak egiteko konpromisoa hartu du. Hirigintzako arautegi eta diseinuen genero ikuspegia izatea bermatu nahi da honekin.

Azkenik, **2015 urteko udazkenean herritarrekin itzulketa eta balorazio saio bat edo batzuk egitera** konprometitu dira, urtean zehar egindako esku hartzeak azaldu, hauen berri eman, aurreikusita zeuden eta egin ez diren arrazoiak azaldu, eta prozesuaren zein maparen balorazio eta berrikusketa egiteko.

5

PROZESUAREN BALORAZIOA

Hirugarren atal honetan, Aholkularitzaren balorazioak jasotzen dira. Donostia hiriko Puntu Kritikoaren Mapa osatzeko prozesu hau baloratzeko hainbat ezaugarri izan behar ditugu kontuan. Atal honetan prozesuaren balorazio labur bat jasotzen da hainbat azpiataletan banatua.

▶ PARTAIDETZA

Metodologia atalean partaidetzaren inguruko datuak eman dira. Horien inguruko baloraziorik ez da aipatuko, baizik eta partaidetza berak, izan den kopurura izan delarik, izan dituen ahuldadeak/indarguneak azpimarratuko dira.

Indarguneei dagokienez, azpimarratzekoa da deituak izan diren eragile denek izan dutela harremana prozesuarekin. Batzuek prozesuan zehar antolatutako saioetan parte hartu dute, beste batzuen kasuan Udal teknikaria izan da eurekin zuzenean harremanetan jarri eta prozesuaren berri eman diena, ondoren beraien ekarpenak jasotzea ahalbidetuz.

Ahulguneei dagokionean berriz, momentu batzuetan auzoen eta emakume talde eta eragile feministen artean egon den desorekari erreparatu behar zaio. Prozesuaren amaieran nabarmendu da desoreka hau, emakume taldeetako ordezkarien partaidetza jaisten joan delako.

▶ PROZESUAREN EGITURA

Gainontzeko herri eta eredu ezberdinetan puntu kritikoaren mapak osatu, landu eta kontrastatzeko prozesuetako partaideak, hein handi batean, emakume talde eta eragile feministetako kideak izan ohi dira. Emakumeak eta talde feministetako kideak prozesu hauen ezinbesteko oina dira, eurek baitira hirian segurtasunez eta modu inklusiboagoan bizitzera bideratutako subjektu garrantzitsuenak. Hori dela eta, prozesu hauen parte aktibo eta garrantzitsu izatea ezinbestekoa da.

Donostiako Udalak sustatutako prozesu honetan, berriz, lehendabiziko herritarren oinarri honi bigarren bat gehitu zaio, auzo ezberdinetako ordezkariena hain zuzen. Auzotar hauek auzoarekiko duten ezagutza maila, konpromisoa eta inplikazioa handia da, eta prozesuan zehar ikuspegi hori oso nabarmena izan da. Prozesuaren bigarren saiora auzoetan aurkitutako puntu kritikoaren proposamenak ekartzeko eskatu zitzaizen dinamizaziotik, eta auzotar gehiagorekin edota auzo elkartearekin kontrastatu eta konpartitutako puntu proposamenen zerrendarekin etorri ziren. Auzoen inplikazioak prozesua aberastu duela baloratzen da.

Txosten honetan lehenago aipatu bezala, prozesu honetako momentu batzuetan elkarrekin lan egin dute eragileek eta beste batzuetan modu berezitan, eragile feministak eta emakume taldeak alde batetik, eta auzoetako ordezkariak bestetik. Prozesuaren momentu batzuetan modu berezitan lan egiteak talde txikiagoekin gertuagoko lana egitea ahalbidetu du, konfiantza giroa eta guztien partaidetza bermatu du.

► SORTUTAKO EDUKIAK, EMAITZAK

Prozesu honetan sortutako emaitza nagusia, zalantzarik gabe Donostia hiriko Puntu kritikoen Mapa dugu. Hala ere, prozesuan zehar hainbat eduki landu izan dira emaitza gisa azken hori sortzeko.

Azpimarratzekoa da saio gutxitan eduki asko landu direla, eta eduki hauekiko agertutako interesa eta jarrera oso eraikitzailea izan dela herritarren aldetik. Eduki asko izateak hala ere, gai bakoitzari denbora gehiegi ezin eskaintzea ere ekarri du, saioak gehiegi ez luzatze aldera.

Indargune bezala ere aipatzekoa da Udalak eman duen erantzunaren argitasuna. Alde batetik, lan talde teknikoak landutako edukiak modu argian aurkeztu dira, onartu direnak zeintzuk diren, errebisatzeko geratu direnak eta mapan txertatuko ez direnak zeintzuk izango diren argi eta garbi azalduaz. Bestetik, Udalak gaiarekiko hartzen duen konpromisoa ere esplizitua izan da azken saioan egindako aurkezpenaren ostean, bertan zinegotziak azaldu baitu 2015ean aurreikusten dituzten esku hartze eta hobekuntza guztiak.

Beste alde batetik, **ahulezi bezala**, eta lehenago aipatu den arren, saio bakoitzarentzat hartutako denborak momentu batzuetan eztabaida mugatu edo bukarazi egin duela esan beharra dago. Modu honetan, gai batzuk sakontasunez lantzea ezinezkoa izan dela esan daiteke. Ikuspegi honi jarraiki, esan daiteke esku hartze mota ezberdinak ez direla sakontasun maila handiarekin landu herritarrekin, aurkeztu besterik ez dira egin, eta gehiago landu izan balira, agian esku hartze mota batzuetan euren inplikazioa lortzeko aukerarik egon zitekeen.

► HERRITARREK PROZESUAZ EGITEN DUTEN BALORAZIOA

Herritarrek prozesuaren hasiera eta amaieran euren espektatiba eta balorazio pertsonalak helarazteko aukera izan dute saioetan egindako balorazio dinamiken bitartez. Hori oinarri harturik, balorazio eta espektatiben artean gehien errepikatu direnak aipatzen dira ondoren. Balorazio hauek bi mailatan egin dira, alde batetik prozesua baloratu da, eta bestetik saioak baloratu dira.

Saioen balorazioari dagokionean, parte hartzaileek orokorrean ondo baloratu dute saioen dinamika: azalpenen edukiak eta ulerterraztasuna, aurkezpen eta talde lanaren arteko oreka, edota dinamizazioa. Horrez gain, saioetan landu diren gaiekiko interesa, sortu den giroa edota talde lanean sortutako edukiak ere azpimarratu dituzte.

Hala ere, honek ez du esan nahi ekarpenak eta hobekuntza proposamenak ez direnik jaso. Alde batetik, gai batzuk modu arinean edo denbora gehiegi eskaini gabe landu direla aipatu

da, hau da, gai batzuk lantzeko denbora gehiago hartu beharraren garrantzia. Bestetik, momentu batzuetan herritarrek hitza hartu dutenean euren hitzen artean egon diren desorekak aipatu dira, denboraren kudeaketaren ikuspegitik batez ere.

Saioen balorazioak egiteko, idatzizko ekarpenaz gain, lore sortaren dinamika erabili da hainbat saiotan. Hemen agertzen den argazki hau lehendabiziko saioan egindako balorazioaren lore sorta dugu.

Prozesuaren eta prozesuarekiko herritarrek adierazi dituzten espektatibei dagokionean berriz, bi ideia nagusi azpimarratu beharko lirateke.



Lehendabiziko ideia Donostia hiriko puntu kritikoan Mapa osatzeko prozesu hau herritarrekin egin izanarekiko partaideek egin duten balorazio positiboa azpimarratu beharko litzateke. Izan ere, partaideek garrantzia handia eman diote prozesu hau eurekin egiteari, hiria bizi duten pertsonen hiriarekiko duten ezagutza eta konpromisoa balorean jartzeko neurri gisa. Kasu honetan gainera, eragile berri bat txertatu da halako mapa eta prozesuak egiterako garaian. Auzo elkarteetako ordezkarien kasu gehienetan, lehendabiziko aldiz landu dute puntu kritikoaren gaia, eta jarrera eraikitzailea eta aktiboa izateaz gain, auzoarekiko eta hiria askatasunez bizitzearekiko kezka eta konpromisoa agertu dute.

Prozesuaren espektatibei dagokien bigarren ideia, prozesu hau amaitu ondoren bertan hartutako erabaki eta konpromisoekin jarraitzeko eta betearazteko gaitasunen ingurukoa izan da. Partaide askoren artean errepikatu da gauza bat dela prozesu hau egitea, herritarrekin kontrastatzea eta mapa sortzea, baina orain, behin prozesu hau bukatuta euren espektatiba handienak puntu horietan eta prozesu honetan atera diren gaietan lanean jarraitzean datza.

► AURRERA BEGIRA KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Aurrera begira hainbat gai kontuan izan beharrekoak direla proposatzen edo gogorarazten da aholkularitzatik. Izan ere, badira gai batzuk urtean zehar lantzen joan beharko direnak.

Lehendabizi prozesuaren amaieran azaldutako emaitzak borobildu edo ixtea beharko litzateke. Izan ere, lan talde teknikoak egindako bileraren ondoren, puntu batzuk errebisatzeko geratu dira. **Horiek errebisatu eta puntu kritikoan mapan txertatuko diren edo ez erabaki egin behar da, eta erabaki horretaz prozesuan parte hartu duten herritarrek informatu.** Azken saioan egin zen itzulketa lanaren azken atala izango litzateke hau.

41 izan dira azkenean mapa hau osatuko duten puntuak, eta hauetatik 15 puntu ingurutan hobekuntzak egitea aurreikusi da 2015. urtean zehar. **Hobekuntza eta esku hartze horiek informatuz eta publiko eginez herritarrei jakinaraztea interesgarria litzateke,** Udalak prozesu eta gai honekiko duen konpromisoa irmoa dela, eta urte guztian zehar lantzen duten gaia dela adierazteko modua bailitzake.

Puntuz puntu informatzeko aukerarik ez balego ere datorren udazkenean itzulketa eta kontraste lana egiteko konpromisoa hartu du Udalak herritarren aurrean. Momentu hori izan daiteke itzulketa egiteko momentu egokiena, aldez aurretik ez baldin bada itzulketa lanik egin, behintzat.

Prozesu honetan zehar ardura eraman duen Udal zinegotziak 2015eko Aurrekontuarekin loturik zeuden proposamen batzuk agertu zituen. Horien artean batzuk Udal Aurrekontuaren onarpenak baldintzatzen zituen, beste batzuk aldiz, aurrekontua prorrogatuta ere aurrera aterako ziren. 2015eko Udal Aurrekontuaren gaia argitzen denean, Udalak prozesu eta eduki hauekiko hartzen duen konpromisoa berrestea interesgarria izan daiteke herritarrei itzulketa argia egiteko ikuspegitik.

Prozesuaren amaieran hobekuntza eta esku hartzeez hitz egin da, eta horien artean mota ezberdinak bereizi. Herritarrek hiriaz egiten duten erabileraz eta honek espazioa nola baldintzatzen duen kontuan hartuta, herritarren ekimenei bidez puntu ezberdinak landu eta okupatzeko aukera sustatzen jarraitzea proposatzen da, esku hartze oso interesgarria egin baitaitezke ikuspegi honetatik.

Azkenik, eta amaitzeko, Mapa hau bere testuinguruan kokatzearen garrantzia azpimarratu nahi da. Izan ere, eta Udal teknikariek argitu duten bezala, puntu kritikoen mapa hau hiriaren erabileraren segurtasunean, indarkeriaren gaian eta hiria guztiontzat inklusiboago egitearen ikuspegian kokatzen da. Irakurketa zabalago horren azpi puntu bat da, ez da helburu horiei begira landu behar den puntu edo gai bakarra, eta hori argi izatea garrantzitsua da. Hiria guztiontzat seguruagoa eta berdina izatea ez da puntu kritikoen inguruan egindako hobekuntzetatik bakarrik iritsiko, eta ikuspegi horretatik, mapa honen garrantzia eta erabilera erlatibizatu beharra dago.

6

ERANSKINAK

- ▶ **1. Saioaren memoria**
- ▶ **2. Saioaren memoria (auzo elkarteak)**
- ▶ **2. Saioaren memoria (eragile feministak)**
- ▶ **Saioetan landutako Mapa Kritiko zirriborroa**
- ▶ **3. Saioaren memoria**



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad



Herri
Partaidetza
Saila

[a]
aztiker

Jendarte-ikerketak aplikatuak

Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarien Etorbidea z/g

20140 ANDOAIN [GIPUZKOA]

943 59 30 06 / 608 018 512

www.aztiker.com -idazkaritza@aztiker.com

